



EBAZPENA, 2017KO AZAROAREN 27KOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, BI LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA BEHIN BETIKOZ EBATZI, ETA HEZKUNTZA IKUSKARITZAN LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETEZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDA SORTZEN DUENA.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko azaroaren 16ko Ebazpenaren bitartez deialdia egin zen Hezkuntza Ikuskaritzan bi lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betetzeko. Deialdia behin-behinekoz ebatzi egin zen 2017ko a 16ko ebazpenaren bidez, eta hiru eguneko epea ireki zen erreklamazioak aurkezteko.

Miren Sorkunde Celaya Urreistik erreklamazioa aurkeztu du prozesutik kanpo geratzeagatik. Alegatu du baduela Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako kidegoren batean karrerako funtzionario bezala sei urteko aintzintasuna.

Erreklamazioak aurkeztu dituzte ere hurrengo hautagai hauek: Imanol Iraola Mendizabal, Xabier Mendoza Mitxelena, Igone Azpiroz Artano y M^a Eugenia Esteban Piudo. Baremazio batzordeak aztertu eta ebatzi egin ditu erreklamazio horiek, eta I eranskinean jasota daude.

Azkenik, Julián Lucas García uko egin dio esleitutako lanpostuari, beraz prozesutik kanpo geratu da; lanpostu hori prozesuko baldintzak betetzen dituen beste inork eskatu ez duenez, hutsik geratuko da.

Deialdiaren zortzigarren oinarriak dio Balorazio-batzordeak behin betiko proposamena helaraziko diola Langileak Kudeatzeko zuzendariari eta berak jendaurrean jarriko duela behin betiko ebazpena, Hezkuntza Saileko web-orrian.

Horiek horrela, baremazio-batzordeak egindako Ebazpen-proposamena ikusita, hauxe,

EBATZI DUT

Lehena.- MIKEL MORRÁS GOIKOETXEA aukeratzea, behin betikoz, 2017ko maiatzaren 11ko ebazpenaren bidez deitu zen Hezkuntza Ikuskaritzako Eibarko lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Bigarrena.- Onartzea JULIÁN LUCAS GARCÍA uko egin dio esleitutako lanpostuari uko egitea.

Hirugarrena.- Deialdiaren hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, hurrengo lau ikasturtetan Hezkuntza Ikuskaritzan hutsik gera daitezkeen lanpostuak betetzeko zerrenda ondorengo izangaiek osatuko dute behin betikoz, deialdiaren hirugarren basean ezarritakoaren arabera ordenaturik:



1. VIRGINIA MOSQUERA LACALLE
2. MARIA EUGENIA ESTEBAN PIUDO
3. AINHOA BARAIAETXABURU ZARANDONA
4. AINHOA PUJANA URIARTE
5. MIREN KARMELE AURREKOETXEA RUIZ
6. MIREN SORKUNDE CELAYA URREISTI
5. M^a JUNCAL MITXELENA IZQUIERDO
6. MIREN AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA
7. INMACULADA LASSO DE LA VEGA MARTINEZ
8. ASIER XIMENO MALATSETXEBARRIA

Laugarrena.- Ebazpen hau Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea II. Eranskinean jasotzen den hautagaien behin betiko puntuazioarekin.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 27a

**KONRADO MUGERTZA URKIDI
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**



I ERANSKINA

ERREKLAMAZIOAK

MIREN SORKUNDE CELAYA URREISTI

Eskatu du: Prozesuan onartuta izatea Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako kidegoren batean karrerako funtzionario bezala sei urteko aintzinasuna baduelako.

Erantzuna: Bere zerbitzu-orria berraztertu egin da eta erreklamazioa onartu egin da. Memoria eta alegatutako merituak baloratu egin dira eta deitu egin zaio elkarrizketa egiteko.

JULIÁN LUCAS GARCÍA

Eskatu du: Esleitutako lanpostuari uko egin dio, eta eskatu du ordezkapen-zerrendan geratzea.

Erantzuna: Onartu egiten da uko egitea. Ez da onarten ordezkapen-zerrendan geratzekoe eskaera deialdiaren hirugarren basean ezarritakoaren arabera.

IGONE AZPIROZ ARTANO

Eskatu du: Bere eskaera onartzea epe barruan aurkeztu zuelako.

Erantzuna: Eskaerak ez ditu baldintzak betetzen epe barruan aurkeztu zuenik onartzeko.

XABIER MENDOZA MITXELENA

Eskatu du: Memoria berraztertzea eta berkalifikatzea.

Erantzuna: Memoria berraztertu egin da eta emandako puntuazioa mantentzen da.

IMANOL IRAOLA MENDIZABAL

Eskatu du: Memoria berraztertzea eta berkalifikatzea.

Erantzuna: Memoria berraztertu egin da eta emandako puntuazioa mantentzen da.

MARIA EUGENIA ESTEBAN PIUDO

Eskatu du: Ordezkapen-zerrendaren ordena aldatzea eta lehenengo postuetan jartzea 2017ko maiatzaren 11ko deialdiaren ondorioz sortu zen zerrendan zeudenak.

Erantzuna: Deialdiaren hirugarren basean ezarritakoaren arabera erreklamazioa onartu egin da, eta maiatzaren deialdiaren zerrendan geratzen ziren bi hautagaiak zerrendako lehenengo postuetan sartu dira.

